

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Hutsen zuzenketa 2014ko abenduaren 29ko ALHAOn (148. zk.) argitaratutako 2014-06115 iragarkian, auzolanen ordenantza behin betiko onartzeari buruzkoan

Huts batzuk antzeman dira 2014ko abenduaren 29ko ALHAOn (148. zk.) argitaratutako 2014-06115 iragarkian, Zalduondoko auzolanen ordenantza behin betiko onartzeari buruzkoan. Horrela bada, oso-osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin.

Zalduondoko Udaleko auzolanen ordenantza

1. Xedea

Ordenantza honen xedea da Zalduondoko Udalak antolatzen dituen auzolanak arautzea eta zehaztea.

2. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, ondoko definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Ordenantza honen ondorioetarako, honela definitzen da auzolana: udalak jabetzan edo erabiltzeko esleituta dauzkan ondasunetan auzokoek eta egoiliarrek egin beharreko lana; lan horren xedea izan behar du erabilera edo zerbitzu publikorako diren ondasunen eraikuntza, konpontze edo mantentze lanak egitea.

2.2. Borondatezkoak dira, eta helburu dute guztien onerako laguntzea, elkartasuna eta auzo harremanak sustatuz.

2.3. Auzolanetan egin daitezkeen lanak hauek dira:

a) Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

b) Saneamenduak, estoldak, ur sare eta instalazioak, lorategiak, iturriak, putzuak eta garbitokiak konpondu, hobetu, garbitu, mantendu eta zaintzea.

c) Eraikinak eta gune publikoak zaindu, konpondu, hobetu, garbitu eta mantentzea.

d) Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

e) Mendi eta ibaietan garbiketa, sastraka-kentze eta birpopulatze lanak egitea.

f) Erabilera publikoko azpiegiturak edo ekipamenduak eraikitzea.

g) Ekipamendu publikoetako kalteak identifikatzea, bai eta egin daitezkeen hobekuntzak ere.

h) Udalerriko jaiak edo ekitaldiak direla-eta egin beharreko lanak; esaterako, azpiegiturak antolatu, muntatu eta desmuntatzea, eta garbiketa lanak eta antzekoak egitea.

i) Udallerriaren onurarako beharrezko izan daitezkeen beste edozein jardun.

3. Deialdia

3.1. Udaleko alkate-lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo diren, non egingo diren, non eta noiz hasiko diren eta noiz buka daitezkeen, bai eta zein lanabes eraman behar diren ere.

3.2. Deialdiak bando bidez egingo dira, behar beste denbora lehenago, eta iragarki tauletan, web orrian edo ohiko beste hedabide batzuetan iragarriko dira.

3.3. Zalduondoko egoiliarrek, bakarka edo taldeen edo elkarten bidez, auzonak egiteko proposamena egin ahal izango diote udaleko alkate-lehendakariari.

4. Auzolanak nola egin

4.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bertaratutakoek egin beharreko lan motarako alde zehaztu diren lanabes eta makineria nork berarekin ekarriz.

4.2. Horretarako, auzolanen liburu ofiziala eramango da, non datu hauek adieraziko diren: deialdia, auzolanaren xedea, parte hartzaile kopurua, hasiera eta amaiera orduak, erabilitako lanabesak eta haien jabeak, eta auzolanean gertatutako gorabeherak.

4.3. Udalak pertsona bat izendatuko du (zinegotzia, udal langilea edo herritarra) auzolanak antolatu eta egiteko, eta berak banatuko ditu pertsonak eta bitarteko materialak haiek modurik egokienean burutu daitezen. Auzolana obra konplexuago baten lanen zati bat egitean badatza, arduradunak edo obraren zuzendaritza teknikoa bere gain hartzen duenak modu koordinatuan lan egingo du udalak izendatutako arduradunarekin.

4.4. Adindun guztiek parte har dezakete, baina 16 urtetik gorako adingabeek ere, baldin eta beraien arduradunen edo tutoreen baimena badute.

4.5. Udalak auzolanetan parte hartzen dutenak babestuko ditu. Horretarako, auzolanetatik sor daitezkeen istripu arriskuetatik eta bestelako kalteetatik babesteko aseguruua egingo da.

4.6. Auzolanak ez dakar inolaz ere udalaren eta auzolanean parte hartzen dutenen arteko lan harremanik.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Zalduondo, 2014ko abenduaren 30a

Alkate lehendakaria

EDUARDO RIBAGUDA KAÑAS